

# Asisko gutuna

2014ko Uztaila. 1. printzipioa.

Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

69. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Egia esan, ez dugu ez gure artean, gure espiritualtasunean, poza gehiegi landu. Eta, ez da ez Jesusek azpimarra ez zuelako, ez eta Frantziskok eta Klarak bizi ez zutelako. Baina gure artean betebeharrari, zuzentasunari, ardurari... garrantzi eta leku gehiago eman diogu, pozik eta alai bizitzeari baino. Agian, irribarrea eta bizipoza gure espiritualtasunean txertatu behar ditugu. Benetan.

## Gogoetarako gaia

### *Poza*

Inguruan begiratu, eta aurpegiak luze, triste eta ilun agertzen zaizkigu; eta bizitzak zalapartaz, kezkaz, atsekabez, porrotez eta beldurrez beateak.

Harat honat gabiltza beti lanpetuak, geure baitan bilduak eta arazoetan sartuak, geure bizitzan nonbaitera, helmugaren batera, heldu nahirik, berori zein den edo zein izatea nahi genukeen ere jakin gabe. Ez ote gaitu harrapatu presak, bere ezkutuko tristura, beldur eta norabiderik ezarekin?

Egia da hainbat pertsonak badutela arrazoirik horrela sentitzeko: gaixotasuna, lan-gabezia, mugatasun fisiko eta psikologikoak, desio bete gabeak ... Zer egin horrela sentitzen garenean?

Ibil gaitezke geure zorigaitzengatik penatzen, sufriarazten digunari bueltak ematen, eta gero eta penatuago eta tristeago sentituz. Edo bestela altxa dezakegu burua eta atera hura sartuz goa-

zen zulotik; eta baztertu geure zilborrari begira egotea, eta hasi geure bizitzan pozteko arrazoiak bilatzen.

Ez, noski, poz iragankorrak lortzeko arrazoiak bilatzen, geure aldaratearen mende edo geure desio eta ilusioak bete zain daudenak, alegia. Barneko poz sakonak aurkitzeko arrazoiak baidiz, gorabeheren gainetik dabiltzanak, eta oinarria bizitza den oparian, familian, adiskideetan ..., edo besteengandik dohainik harturiko hainbat pozaldietan dutenak.

Eta batez ere Nazaretoko Jesus daukagu gure pozari eragiteko. Berak dakargu poza, bera da gure poza. Guri Jesusen poz hori onartzea dagozkigu eta berori gertukoei edo urrutikoei helaraztea geure bizitzeko jarreraren bidez; zeren eta gauzak oker eta guk nahi bezala joan ez arren, inor kendu ezin digun Haren Poz oparitua dugulako lagun bizitzan.

## Ebanjelioko pasartea: Jn 16, 19-23

Konturatu zen Jesus galdetu egin nahi ziotela, eta esan zien: «Eztabaidan ari zarete zeuen artean nire hitz hauen esanahiaz: “Gutxi barru ez nauzue gehiago ikusiko, baina pixka bat geroago, berriro ikusiko nauzue”. Bene-benetan diotsuet: Negar egingo duzue eta aiene; mundua, ordea, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete, baina zuen tristura poz bilakatuko da. Emakumea, erditzera-koan, triste egoten da, ordua heldu zaiolako; haurra jaio ondoren, ordea, ahaztu egiten da larrialdiaz, mundura gizon bat ekarri duelako. Zuek ere triste zaudete orain, baina berriro agertuko natzaizue, eta poztu egingo zarete, eta poz hori inork ez dizue kenduko. «Egun hartan ez duzue ezer galdetu beharrik izango.

## Frantziskotar espiritualtasuna

«Behin, bere lagunetakoa bat malenkoniatsu eta kopetilun ikusi zuen eta, hau ez baitzuen ongi eramaten, honela esan zion: “Jainkoaren zerbitzariak ez du triste eta asalaturik agertu behar besteen aurrean, atsegin baizik. Zeure hutsegiteez egin gogoeta zeure gela barruan eta egin negar eta aiene zeure Jainkoaren aurrean. Baina anaien artera itzultzean, utzi tristura eta izan besteen antzeko ...” Eta geroxeago erantsi zuen: “Giza salbamenaren etsaiek inbidia handia didate, eta nigan sortu ezin duten asaldura, nire lagunengan sortzen saiatzen dira”. Hainbeste maite zuen espirituko alaitasunez beteriko pertsona, non hitz hauek idatzarazi baitzituen guztien oharpenerako kapitulu batean: “Eta gorde bitez kanpora goibel eta itxurakeriaz kopetilun agertzetik, baizik eta ager bitez Jaunarengan pozik eta aldarte oneko eta bere neurrian atsegin (1Er 7,16)”». (2 Zel 128).

Frantziskok anaia asaldatuari ez dio eskatzen tristura disimulatzea edo itxurakeriaz pozik agertzea. Gonbidatzen du *Jainkoaren aurrean* jartzera. Jakin badaki, geure baitan edo geure zailtasun eta arazoan aurrean gelditzen bagara besterik gabe, katramilatuta eta menderaturik eta haserre bukatuko dugula. Baina geure burua eta itomenak “*geure Jainkoaren aurrean*” jartzea onartzen badugu, orduan aurkitu ahalko dugu bakea eta poza, Frantziskok “Zu zara gure poza” deitzen dion Harengan.

## Otoitza

Baldin eta zerua, zuhaitzi bat, erreka bat  
kontenplazten gelditu bazara,  
eta «edertasuna» deitzen duzun horrek  
hunkitu bazaitu ...;  
edo bat batean gogoa sentitu baduzu kantatzeko,  
edo distantzia bat korritzeko,  
«poza» deitzen duzun horregatik ...;  
baldin eta txundituta zeure buruari galdetu badiozu,  
nola izan zaitezkeen zu, hain zuzen zu,  
hurereko batek maitatua ...  
uler dezakezu goresteak duen esanahia.

Carlo Maria Martini.

## Gutuneko azken hitzak

"Bihotz alaiak botikarik onenak haineko mesedea egiten du". (Salomon)

### 2014ko uztaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaiak arabera, hemen dauzkate uztaileko erreferentzia guztiak:

1 Mt 8, 23-27	8 Mt 9, 32-38	15 Mt 11, 20-24	22 Mt 12, 46-50	29 Mt 13, 36-43
2 Mt 8, 28-34	9 Mt 10, 1-7	16 Mt 11, 25-27	23 Jn 15, 1-8	30 Mt 13, 44-46
3. Jn 20, 24-29	10 Mt 10, 7-15	17 Mt 11, 28-30	24 Mt 13, 10-17	31 Mt 13, 47-53
4 Mt 9, 9-13	11 Mt 19, 27-29	18 Mt 12, 1-8	25 Mt 20, 20-28	
5 Mt 9, 14-17	12 Mt 10, 24-33	19 Mt 12, 14-21	26 Mt 13, 24-30	
6 Mt 11, 25-30	13 Mt 13, 1-23	20 Mt 13, 24-43	27 Mt 13, 44-52	
7 Mt 9, 18-26	14 Mt 10, 34-11, 1	21 Mt 12, 38-42	28 Mt 13, 31-35	

Uztaileko Otoitza hilaren 31an izango da.

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)




Asis Sarea

646 21 48 96